

Erich Hackl: Memoria, Egia, Edertasuna¹

AURKEZPENA: JON KORTAZAR

POEMEN ITZULPENA: JUAN KRUZ IGERABIDE

ZUZENKETAK: ELIZABETE MANTEROLA

Agian, egile ezezaguna izango zaizue Erich Hackl (Steyr, Austria, 1954), baina oso ezaguna da bere herrialdean; eskoletan ere irakurtzen dira haren nobelak, batez ere hemen aipatuko dugun *Abschied von Sidonie*. Gaztelaniaz, bost nobela argitaratu dizkio- te, bostak arazo politikoei buruzkoak eta konpromisoa ageri-agerian uzten dutenak. Hackl alemaneko irakasle eta *irakurle* gisa aritu zen Madrileko Unibertsitate Konplu- tentsean, eta, horregatik, oso gertutik jar- raitu ditu Espainiako literaturaren nondik norakoak.

Espainiako merkatuan agertu zen lehena *Sara y Simón, una historia sin fin* izan zen (jatorrizkoaren izenburua: *Sara und Simón. Eine endlose Geschichte*, 1995; gaztelaniaz, 1998an argitaratu zuen Galaxia Gutenberg- Círculo de Lectores-ek). Nobela horrek Argentinan desagerturiko haurren historia

du kontagai. Sarari bere seme jaioberria —Simon— bahitu diote, eta, nobelaren orrialdeetan, haren tragediaren berri izango dugu. Nolako bideak korritzen dituen desa- gerturiko haurra berriz aurkitu arte. Baina, Sarak semea aurkitu duela uste duenean, jus- tiziaren bide aldrebesa hasiko da, eta Sarak ezin izango du frogatu bere seme Simon denik aurkituriko umea. Horregatik ez du bukaerarik istorioak. Sarak etengabe jarrai- tu beharko du bere semearen arrastoan.

Gaztelaniaz ezagutu genion bigarrena *Adiós a Sidonie* nobela izan zen (*Abschied von Sidonie*, 1989; gaztelaniaz, Pretextos, 2002). Nire ustez, Erick Hackelen lanik aipagarriena da, eta ziurrenik errazena aur- kitzen geroago eta urriagoak diren gure li- burutegietan. Sidonie ijitoen alaba da, sen- di sozialista batean hazia Bigarren Mundu Gerraren garaian. Sidonie naziengandik ez-

1. Lan hau Eusko Jaurilaritzak bultzatzen dituen Ikerketa Taldeen Sareko LAIDA taldeak egina da (IT 1012/16).

kutatzeko familia horrek egiten dituen aha-
leginak dira Hacklen eleberriaren oinarria
eta jatorria. Haur ijitoaren patuak, baina, ez
du irtenbiderik. Naziek heriotzara eramango
dute; garbiketa arrazisten indarrak gaina
hartuko dio itxaropenaren eta justiziaren
munduari.

Erich Hackelek argitalpenen munduan
editorearen erruz egin duen bidaiarik lo-
tsagarriena *Boda en Auschwitz* nobela izan
da (*Die Hochzeit von Auschwitz. Eine Bege-
benheit*, 2002; gaztelaniaz, Destino, 2005).
Auschwitz kontzentrazio esparruan, gerta-
ezina zirudien arren, ezkontza bat izan zen,
eta ezkonberrien historia hartzen du ardatz
nagusizat nobelak. Dena dela, argitalpe-
nak arazo handiak izan zituen. Sinesgaitza
dirudien arren, zoritxarrez, bukaerarik gabe
argitaratu zen Espainian. 212. orrialdera
heltzean, irakurle gaixoak ikusten du esal-
diak —eta, bide beretik, nobelak— ez duela
bukaerarik: «Luego dieron una patada a la
caja» esaldiaren ostean ez dago ez puntu ez
komarik; hutsune nagusi batean amiltzen
da kontakizuna, eta irakurlea zur eta lur
geratzen da, aurrera nola joan jakin gabe.
Idazlea bera arduratu zen —eta kontakizun
mitikoak dio Borgesek ere beste horren-
beste egin zuela— liburu-dendaz liburu-
denda joan eta apalategietan geratzen ziren
aleak kenarazten, epaitegian arrazoia jaso
ondoren.

Zabalkunde arazoak direla medio Erich
Hacklen lanik aurkitu ezin badugu, *Esbozo
de un amor a primera vista* nobela laburrak
ase dezake irakurleak austriar egilearen lana
ezagutzeko izan dezakeen gogo (*Entwurf
einer Liebe auf den ersten Blick*, 1999; gaz-
telaniaz, Laertes, 2010). Ongi zabaldu den

lana da, nahiz eta, izenak adierazten duen
bezala, ekintza nagusiaren zirrimarra izan.
Karl Sequens vienarraren istorioa kontatzen
du. Nazioarteko Brigadetan Espainiako Ger-
ra Zibilera etorri eta zauritua, Herminia
Roudièr-*ez* maitemintzen da ospitalean.
Bien maitasun istorioaren kontakizuna da
nobela. Kontua da maitemindu eta ezkon-
du egin zirela, baina historiak bananduko
ditu, eta urruneko eta elkarrekin egon ga-
beko maitasun istorio bat da eurena, gerrak
eta kartzelak oztopaturikoa.

Lau nobela horien laburpen xumeek
adierazten dutenez, Erich Hacklen literatu-
rak antzeko bideak egiten ditu beti. Ez dio
muzin egiten konpromisoari. Espainiako
Gerra Zibilean eta Bigarren Mundu Ger-
rran faxismoak eragindako bidegabekeri-
en aurkako kontzientzia da berea. Eta, bide be-
retik, diktaduren eta batez ere Argentinan
gertaturiko diktadura militarren aurka-
ko joera agertzen du. Beraren pertsonaiak
ez dira oso ezagunak; herri xumetik datoz,
eta ez dira historiaren orri nagusietara iga-
ro, baina badute zer kontatu, eta, neurri
batean, bere txikitasunean, gizarteak jaso
duen tragediaren handitasuna kontatzen
dute. Ezin dira alde batera utzi egileak lan-
du dituen ikuspegi sentimentalak: oztopo
guztien gainetik, maitatzeko borondatearen
nagusitasuna azpimarratu du. Bai *Esbozo*-n,
bai *Boda*-n, pertsonaien nortasun nagusia
maitasunaren ingurukoa da, eta historiaren
gainetik gizakiaren duintasuna nabarmendu
du Hacklek, borroka ideologikoa gizatiar-
tuz, ideia haragi bihurtuz. Istorio txiki-
ekin, mundu nagusiak eraiki ohi ditu.

Erich Hacklek ez du maite fikzioa; ez du alferrik alemanera itzuli Rodolfo Walshen *Sarraski operazioa*. Ekintzak ahalik eta zehatzen kontatzen ditu bere nobeletan, eta dokumentazioa da bere nobela munduen eragin nagusia. Gertatutakora hurbiltzeko ahalegin handia egin ohi du idazleak esaldiak paperean jartzen hasi aurretik, eta dokumentalaren itxura hartu ohi dute haren lanek, baina, dokumentalaren gainetik, haren testuek kontraesanaren bortizkeria agertzen dute, irakurlearengan eragin sakona sortu arte. Benetan bizi izan diren pertsonen bizitza literatur gai bihurtzen duenean, zorrotz jokutzen du austriar egileak: elkarrizketak egin, datuak bildu, dokumentuak pilatu, eta, jakinduria heltzen ez denean, orduan hasten da idazlea gertatu zena irudikatzen; lehenago ez.

Horregatik ere, Hackelen nobelagintzak ez du ordenarik jarri bizitzan: errealitatea anabasa bada, zuzen adierazten du nahas-mahas hori, eta gaizki doan munduaren errota zuzen jasotzea da beraren idazkeraren helburu nagusia.

Gerora, beste nobela bat ere argitaratu du Erich Hacklek. Europako istorio bat; nola ez? Hala, juduen aurkako joerak nolako indarra duen azaldu nahi du Periferia argitaletxean aurkitu dezakegun *El lado vacío del corazón* nobelak (*Familie Salzmänn. Erzählung aus unserer Mitte*). Hanno protagonistak lehen pasartearen egiten du bere aitortza: «Nire amona konzentrazio esparru batean hil zuten». Handik aurrera, esaldi hori atzetik ibiliko zaio, bere bizitza bera ere aldatu arte. Esaldia xume-xumea da, baina, nobelaren abiapuntutzat hartuta, indarra agertuko du kontakizunak aurrera doan

neurrian. Batetik, Hackelen nobelagintzan gertatu ohi denez, familia bateko hiru belaunaldiren historia kontatzeko aitzakia izan da. Lehena amona horren belaunaldia da. Julia Salzmänn da amona; komunista izan zuen senarra, eta fideltasunak esparruan hiltzera eraman zuen. Ondoren, Hugo semearen historia kontatzen digu. Haurra zela berarengandik banandu, eta aktibista politiko gisa eman zuen bizitza; lehenik, ekintza eta ideal komunistarekiko oso leial, eta, ondoren, mindurik. Azken belaunaldia Hannorena da, Europan zehar zabaldu zen ezkertiarren aurkako oldearen biktima.

Erich Hacklen lan guztietan ageri den bezala, nobela honetan ere familiaren historia kontakizun historiko eta politikoarekin nahastuz doa. Familiaren historia aitzakia bat da Europaren historiako fresko nagusia osatzeko. Pertsonaiek, hala, hiru aldi nagusi zeharkatzen dituzte: naziekiko izua, etikaren indarrez eta bultzadaz onartu eta mantenduriko konpromiso politikoa, eta, azkenean, norberaren bizitzaren porrot tragikoa. Egilearen mundu narratiboan, familiaren historia Europako testuinguru historikoan kokatzen da, manikeismorik gabe, sentimentalismorik gabe. Eta, historia nagusia eta txikia kontatuz, pertsonaien gogoak, esperantzak, idealak eta galerak kontatzen ditu. Egileak, baina, objektibotasuna maite du beti, eta lumari ez dio uzten dakien baino gehiago kontatzen. Ez dut gogoratzen alferrikako deskribapenik kontakizunean, eta, dokumentuak agertzen dituenek, egiantza ematen dio kontakizunari. Egileak egia maite du fikzioaren aurretik, eta horrek tonu berezia ematen dio kontakizunari.

Bestelakoa da gaur euskarara dakargun *Liburu hau amarena dut*² (*Dieses Buch gehört meiner Mutter*, 2013). Hacklek ez du ia poesiarik idatzi, eta nobelan indartu du bere idazle eginkizuna. Amaren heriotzak, ordea, poesiara eraman du, eta amaren hizkuntza jaso nahi izan du, amaren historia kontatzeko asmoz. Alemaniako idazle batek *Liburu hau erregearena da* deitua zion bereari, eta, kontrastea sortu nahian, pertsonaia xumeei eman nahi izan die hitza Hacklek. Aldaketa txiki horrek izugarrizko bermea ematen dio liburuari, erregearen hizkuntzatik amaren hizkuntzara aldaketa nabarmena baitago liburuaren sormenean eta agerpenean: behetik begiratzen du egileak, eta behekoen historia kontatuko digu, berriz ere. Austriako gizartearen berri ematen du liburuan, eta, haren barnean, amaren bizitza, beraren ahotsa eraiki nahian, beraren bizitza gogo-

ratu nahian. Ezin da ukatu Erich Hackelen kontalari indarra ageri dela liburuan; poesia narratiboa da gehienbat, eta hala eraikitzen du amaren biografia, baina, era berean, ezin da ukatu poesia handia ageri dela liburuan. Amaren ahozko komunikazioa agerian utzi nahi izan du liburuan, eta, horregatik, ahozkotasunaren hainbat teknika uzten ditu agerian.

Baina liburuari begiradak ematen dio indarra. Ez da Hackelen idazkera nostalgikoa; ama bizi den gizartea krudela da; ez du meniarik ematen, eta landa gizarte hori zekena da, gogorra, beldurrez betea (eta ez da ahaztekoa sexuari eta erlijioari zor zaion izua).

Amaren irudiaren bidez, berriro, mendearen irudia ematen du egile austriarrak. *Liburu hau amarena dut*: Memoria, Egia, Edertasuna.

2. Liburuari hasiera ematen dioten hamar poemak ekarri ditugu orriotara.

Dieses Buch gehört meiner Mutter

Liburu hau amarena dut

ERICH HACKL

Am Hang des Predigtberges
lag Sankt Leonhard.
Am Fuß des Heidenberges
lag Weitersfelden.
Firling lag so dazwischen:
vier Hügel dahin,
fünf Hügel dorthin.

Wer bis dreißig zählen konnte,
hatte das ganze Dorf erfaßt:
zwei Dutzend Höfe und Häusl,
zwei Wirtshäuser,
eine Schmiede,
eine Kapelle,
ein Feuerwehrhaus.

Drumherum ein paar tausend Steine,
verstreut über Weiden, Äcker und Wälder.

Mittendrin allerlei zahmes Getier
sowie Mannsbilder, Weiberleute und Kinder,
erfüllt von Fleiß, Gehorsam, Gottesfurcht
und einem großen Durst nach Geselligkeit.

Immer in der Schwebe
zwischen Argwohn und Leichtsinn.

Zu erschöpft,
sich die Gegenwart vorzustellen.

Solche wie ich.

SERMOIAREN mendian,
San Leonardo dago aldapan.
Paganoen mendian, berriz,
Landazabal, oinean.
Bien tartean, Firling:
lau muinora batetik,
bostera bestetik.

Hogeita hamar arte zenbatzen jakinez gero,
herri osoa inguratzen zen:
bi dozena baserri eta etxeorde,
bi ostatu,
aroztegi bat,
baseliza
eta su-hiltzaileen postua.

Inguruan, milaka harri,
belaze, soro eta basoetan banatuak.

Han eta hemen, era guztietako abere otzan,
gizon, emakume eta haur,
gogo bizikoak, esanekoak, Jainkoaren
beldurrez beteak eta gizartekoiak.

Beti arinkeriaren
eta susmoaren mugan.

Nekatuegiak
oraina irudikatzen.

Nire kideko jendea.

HAFER und Roggen und jede Menge Erdäpfel.
Dazu Rüben. Flachs. Mehr ließ der Boden nicht aus.
Die Äpfel waren sauer, die Zwetschken fielen
unreif vom Baum. Birnen, ja Birnen gediehen,
aber sie waren klein und matschig und schwarz
und hielten sich nur ein paar Wochen.

Wir hatten als einzige einen Kirschbaum.
Er stand in der Mulde neben dem Haus,
ein wenig geschützt vor dem eisigen Wind.
Um ihn durchzubringen, ging mein Vater
in den Frostnächten hinaus, ein kleines Feuer
anzuzünden, das rauchte weiß wie die Blüten.

Das erste Fahrrad war aus Holz.
Es hatte zwei Räder und keine Pedale.
Mit dem Lenker ließ sich nicht lenken.
Zum Aufsitzen brauchte ich keinen Stein.

Die ersten Skier waren zwei Faßdauben.
An die Spitzen waren Schnüre genagelt,
zum Festhalten und zum Steuern.
Der Skistock war noch nicht erfunden.

Das erste Motorrad kurvte um die Kapelle,
ehe es knatternd im Hohlweg verschwand.
Es hinterließ eine Spur der Verwüstung:
eine tote Henne, Federn, geschockte Gänse.

Das erste Schiff schwamm auf der Donau.
Ich sah es von Urfahr aus, auf die Entfernung
kamen mir die Menschen an Deck winzig vor.
»Zwergerl«, juchzte ich, »drei, vier Zwergerl!«

Der erste Zeppelin war auch schon der letzte.
Sein Rumpf glitzerte in der Wintersonne.
Die Dietl, die uns beim Dreschen half, seufzte:
»Was Schöneres werd ich nie mehr sehn.

OLOA, zekalea, eta mota guztietako patatak.
Erremolatxa eta lihoa. Eta kito lurraren emana.
Sagarrak, garratzak; aranak, ondu gabe, lurrera.
Txermenak, bai, helduak
baina txikiak, mailatuak eta beltzak;
ez zuten aste pare bat baino gehiago irauten.

Guk gereziondoa besterik ez genuen,
sakonune batean, etxe ondoan,
izozt-z-haizetik babestuta.
Hura aurrera ateratzeko, gau izoztuetan
aita kanpora irteten zen su txiki bat piztera;
kea loreak bezain zuri igotzen zen.

LEHEN bizikleta egurrezkoa izan nuen;
gurpil bi, eta pedalik ez;
eskutokiak ez zuen gidatzeko balio.
Gainera igotzeko ez nuen harririk behar.

Nire lehen eskiak, upela-ohol birekin eginak.
Muturretan, bi lokarri iltzez josiak,
heltzeko eta gidatzeko.
Artean ez zen eski-makilik.

Nire lehen motorrak baseliza inguratu zuen,
gurdibidean barrena aienatu aurretik.
Atzean suntsidura-arrastoak utzi zituen:
oilo bat hilik, lumak, antzara aztoratuak.

Lehen itsasontzia Danubion zehar
Urfabr-etik ikusi nuen. Urrunean,
kareleko jendea oso txikia iruditu zitzaidan.
Ipotxak! —egin nuen oihu—. Hiru, lau ipotx!

Lehen zepelina azkena ere izan zen.
Neguko eguzkitan distira egiten zuen kroskoak.
Dietl-ek gari-jotzen laguntzen zigun, eta hasperen egin zuen:
—Inoiz gehiago ez dut ikusiko ezer hain politik!

Die Straße war schmal und steil und schlecht.
Alle heiligen Zeiten kam ein Auto daher.
Am Firlingberg versagten meistens die Bremsen.

Einmal waren es Ausflügler aus der Stadt,
der Fahrer mit Lederhaube und seine schöne Frau
im offenen Verdeck.
Das Auto überschlug sich
und blieb im Graben liegen.
Die Räder surrten noch eine Weile.

Die Frau war tot, wir legten sie in die Stube,
bis der Leichenbeschauer kam.
Der Mann neben ihr jammerte zum Herzerbarmen
um sein gebrochenes Bein.

Die Buben schnitten aus den Reifen Radiergummis,
die schmierten.

EINE kleine Semmel kostete fünf Groschen.
Eine Rippe Schokolade zehn Groschen.
Vom Kirtag ein großer Sack Süßigkeiten
mit Schaumrolle und Kokoskuppeln einen Schilling.

Ich hatte es gut: meine Mutter gab mir jeden Tag
eine halbe Semmel mit in die Schule.

Die Rauh Hedwig, die so schön singen konnte,
hatte nie mehr als ein hartes Scherzel in der Tasche.
Oft war es verschimmelt.

Die Fessl-Kinder legten die Brotscheiben übereinander
und wehe, die des andern stand vor.

Beim Pum hatten sie achtzehn Kinder und eine große Not.
Auf ihrem Christbaum hingen nur Erdäpfelspeigen.

ERREPIDEA estua zen, malkartsua eta txarra;
oso noizbehinka igarotzen zen autoreen bat,
eta, Firling-eko aldapan, huts egiten zuen galgak beti.

Behin, hiriko txangozale batzuk etorri ziren
kabriolet batean;
gidariak larruzko txapela zeraman,
eta bere emazte ederra zekarren alboan.
Autoa irauli egin zen
eta arekara amildu.
Gurpilek biraka jarraitu zuten une batez.

Emakumea hilik zegoen; gelan etzan genuen
forentsea iritsi arte.
Haren alboan, intziri egiten zuen senarrak
hanka hautsita, errukarri.

Umeez, pneumatikoekin, kedar arrastoak
uzten zituzten borragomak egin zituzten.

OPIL BAT, bost xentimo;
txokolate ontza bat, hamar xentimo.
Erromerian, goxoki poltsa handi bat,
merenge-ostopil eta kokozko gozoki eta guzti, txelin bat.

Nik zortea nuen: amak egunero opil erdi bat
ematen zidan eskolarako.

Hedwig Rauh-ek, hain ondo kantatzen zuen hark,
zezina zati gogor bat besterik ez zuen eramaten poltsikoan;
lizundua, sarri.

Fessl-darren seme-alabek bakoitzaren
ogi-xerrak elkarren gainean jartzen zituzten;
eta ez zedila bestearena irtenago geratu!

Pum-darrek hamazortzi seme-alaba zituzten, eta behar handia.
Eguberri-zuhaitzean patata zatiak baino
ez zituzten zintzilikatzen.

Jedes Jahr kamen sie zweimal ins Dorf:
Anfang Mai, wenn in den Gräben der letzte Schnee
geschmolzen war, Mitte September,
bevor es kalt aus dem Böhmischem wehte.

Immer war ich allein zu Hause. Es hieß,
sie stehlen Kinder. So schnell konnte ich gar nicht
das Hoftor verriegeln, das Haustor zusperren,
die Geschäftstür verrammeln, wie mein Herz klopfte.

Mein Vater lachte. Meine Mutter warnte ihn
schon gar nicht mehr. Jedesmal ließ er sich
auf den Roßhandel ein. Jedesmal fing der Hengst,
feurig und stolz, nach ein paar Tagen zu lahmen an.

Die Frauen trugen bunte Röcke und Kopftücher
wie wir im Sommer auf dem Feld: im Nacken verknotet.
Sie rupften die Hühner im Handumdrehen.
Sie stehlen wie die Raben, sagte man. Uns ging
nie was ab.

Im Gegenteil, wenn sie sangen, abends am Feuer
in der Senke neben dem Haus, wo der Kirschbaum stand,
flog uns was zu, das wir nicht benennen konnten.
Eine Wonne, ein Schaudern, süß und bitter zugleich.

Unsere Schuld war es nicht, daß sie mit einomal ausblieben.
Unsere Schuld war, daß wir nicht fragten, wo sie
geblieben waren.

URTEAN bi bider etortzen ziren herrira:
maiatzaren hasieran, areketako azken elurra urtzean,
eta irailaren erdi aldera,
Bohemiako haize hotzak jo aurretik.

Ni beti bakarrik egoten nintzen etxean.
Umeak lapurtzen zituztela eta,
ezin itxi nik bihotz-taupadak bezain bizkor
oilategiko ate tzarra,
eta berdin etxekoa,
eta dendakoaren maratila trabatu.

Aitak barre egiten zuen. Amak, berriz, ez zion
jada kontrarik egiten gizon hari; zaldi-tratuan tematua,
beti erosten zien berebiziko zaldi bizi bat
eta handik egun batzuetara herrenka hasten zen aberea.

Emakumeek koloretako gonak
eramaten zituzten, eta buru-zapiak:
udan guk ere bai soroan, lepondoan lotuta.
Aitaren batean lumatzen zituzten oiloak.
«Beleek bezala osten dute», esaten zuen jendeak.
Baina guri inoiz ez ziguten ezer lapurtu.

Alderantziz: gauean, gereziondoa zegoen etxe ondoko sakonunean
sutondoan kantuan hasten zirenean,
izendatzen ez genekien zerbait iristen zitzaigun:
atsegin bat, zirrara bat, gozoa eta garratza aldi berean.

Ez zen gure errua izan haiek bat-batean desagertzea.
Non zeuden ez galdetzea izan zen gure errua.

UNSER Nachbar hatte vier Töchter,
eine tüchtiger als die andere,
dazu blitzsauber und gescheit.

Er hatte seine Frau getötet.
Es war ein Unfall, beteuerte er.
Er habe auf eine Katze geschossen.
Das Gericht sprach ihn frei.

Er hatte einem das Leben gerettet.
Er hatte ihn aufs Pferd gehoben,
er war mit ihm weit geritten,
zum Verbandsplatz, im Krieg,
sonst wäre der eine verblutet.

Er war hinter den eigenen Töchtern her.
Der Fanni, die bei uns Dirn war,
schlich er bei jeder Gelegenheit
nach in den Stall oder paßte sie
auf dem Streuboden ab. Einmal
ging mein Vater dazwischen.
Er schlug ihn grün und blau.
»Tu das nie wieder.« Aber er tat es.

Viel später fand die Fanni eine Stelle
als Serviererin in einem Hotel.
Der Juniorchef machte ihr einen Antrag,
dann jagte er sie aus dem Haus.
Einer hatte ihm akkurat geschrieben:
»Die hat es mit ihrem Vater getrieben!«

GURE ETXEKONEKOAK lau alaba zituen,
zein baino zein langileagoak,
ederrak eta bizkorrak.

Emaztea hil zuen,
istripuz, behin eta berriz zioenez:
katu bati egin omen zion tiro.
Epaimahaiak errugabe jo zuen.

Gizon bati bizia salbatu zion gerran:
zaldi gainera igo,
eta bide luzean eraman zuen
sorosgunera iritsi arte.
Hori egin izan ez balu,
odolustu egingo zen bestea.

Bere alaben atzetik ibiltzen zen:
Fanniri, gure etxean neskame zegoenari,
ukuilura jarraitzen zion aukera zuenean,
edo mandioan itxaroten zion.
Behin, gure aita tartean sartu,
eta berebiziko jipoia eman zion:
«Ez egin horrelakorik berriro».
Baina berak egin egiten zuen.

Denbora luzea igarota, Fannik
zerbitzari-lan bat aurkitu zuen hotel batean.
Nagusiaren semeak ezkontza-eskea egin zion;
gero, etxetik bidali zuen,
norbait kontu txikiekin joan baitzitaion:
«Horrek aitarekin egiten zian».

LEBENS MüDE. Ein Zustand,
an dem man sterben konnte.
Selten genug, aber doch.
Sich am hellichten Tag hinlegen,
vorher nach dem Pfarrer schicken,
die letzte Ölung empfangen,
die Augen schließen für immer.

Aber die meisten sind gestorben,
als sie noch voll im Saft standen.
Vom Heuboden gefallen,
vom Baum erschlagen,
vom Blitz getroffen.
Oder einfach umgesunken,
in der Hand den Krampfenstiel,
die Mistgabel oder den Eisstock.

Gesund fortgegangen,
tot heimgekommen.
Zwei Tage lang aufgebahrt.
Von den Männern und Frauen,
alle in schwarzem Tuch,
mit Weihwasser besprengt,
beim Namen genannt,
mit einem Abschiedswort bedacht.

Dann rief der Vorbeter auf
zum gemeinsamen Gebet:
für den Verschiedenen,
für die Freundschaft,
für alle, die in dem Haus
schon gestorben sind,
und für den Nächsten,
der heraussterben wird.

Das Wimmern der Witwe,
das Schluchzen der Waisen,
das Räuspern der Nachbarn,
während der Sarg zugenagelt,
von vier Männern geschultert,
auf ein Fuhrwerk gehoben wurde.

Zuletzt der Trauermarsch,
schleppend und trostlos.

BIZITZEAZ aspertuta,
horregatik ere hil zitekeen bat;
bitxia zen, baina hala zen.
Egun-argi betean etzan,
aurretik apaizaren bila bidali norbait,
azken igurtzia hartu,
eta begiak itxi betiko.

Gehienak, hala ere,
bizi-bizi zeudela hiltzen ziren:
belar-metatik erorita,
zuhaitz batek azpian harrapatuta,
tximistak jota,
edo, besterik gabe, zerraldo erorita
eskuan pikotx-kirtena edo sardea zutela,
edo bola-jokoan zebiltzala.

Osasuntsu irten;
hilik itzuli.
Bi egunez gorpuak gorputz,
beltzez jantzitako gizon-emakumeek
ur bedeinkatuz zipristintzen zituzten,
beren izenez deitzen zieten,
agur-hitz batzuen bidez oroitzen zituzten.

Otoitza gidatzen zuenak
elkarrekin errezzatzeko gonbita egiten zuen:
hildakoaren alde,
adiskidetasunaren izenean,
etxe hartan hildako
guztien alde,
eta hurrena hilko
zenaren alde.

Alargunaren aieneak,
umezurtzen zotinak,
auzoen eztul-karraskak,
zerraldoa hiltzez josi
eta lau gizonek bizkarka
gurdira igotzen zuten bitartean.

Eta, azkenik, hileta-segizioa,
atsekabeturik arrastan.

TROSTLOSER noch war es,
wenn ein Kind starb,
und besonders trostlos,
wenn es ungetauft starb.
Nur die engsten Angehörigen
gaben ihm das letzte Geleit.
Für gewöhnlich trug der Vater
den kleinen Sarg, wankend
unter der federleichten Last.

Als aber unser Nazi starb,
vier Jahre vor meiner Geburt,
war der Vater im Krieg.
Man verschob das Begräbnis
in der Hoffnung, der Kaiser
werde ein Einsehen haben
und Sterbeurlaub genehmigen.
Schließlich führte ein Nachbar
den Trauerzug an, unterm Arm
den ungehobelten Kindersarg.
Hinter ihm meine Mutter.
Auf dem Rückweg, zwischen
Friedhofsmauer und Schwagerhaus,
kam ihr mein Vater entgegen,
wankend wie sie unter der
schwer beerdigten Last.

ARE LATZAGOA zen atsekabea
haur bat hiltzen zenean,
eta areago bataiatu gabe hiltzen bazen.
Gertueneko senideek bakarrik
laguntzen zieten azken bizilekura.
Aitak eramaten zuen zerraldo txikia
balantzaka
zama arinaren pean.

Gure Nazi hil zenean, hala ere
—ni jaio baino lau urte lehenago—,
aita gerran zen.
Hileta atzeratu egin zen,
Enperadoreak aintzat hartu
eta baimena emango ziolakoan.
Azkenean, auzoko batek
gidatu zuen segizioa,
haur-zerraldo kaskarra besazpian hartuta.
Atzetik, gure ama.
Itzultzerakoan, hilerriko hormaren
eta koinatuaren etxearen tartean,
aita irten zitzaien bidera,
lurperaturiko zama astunaren pean
haien antzera balantzaka.

Das ist meine erste Erinnerung:
die an den Vater, als er sechs Jahre alt war
und einer Verwandten geschenkt wurde.
Ihr Mann war jung gestorben, kinderlos,
sie wollte nie wieder heiraten.
Aber da war der Hof, schuldenfrei
mit fünfzig Joch Grund,
der einen Erben suchte.

Damit er sich nicht sträubte,
kauften sie ihm einen Janker
aus grober Wolle, die kratzte.
Du kennst den Weg, sagten sie,
zu Mariä Himmelfahrt längstens
gehen wir dich besuchen.
Daß du uns keine Schande machst.

Während seine neue Mutter
samt Gesinde beim Heuen war,
mußte er neben der Muhm sitzen,
der sie das Bett zum Sterben
in die Stube gestellt hatten.
Greif sie an. Ist sie kalt,
zündest du die Totenkerze an.
Vor ihm die Kerze, daneben die Zünder,
dahinter die Muhm.

Einmal war sie kalt,
da zündete er die Kerze an.
Er betete zehn Vaterunser,
fünf Gegrüßet seist du Maria.
Dann war sie nicht mehr kalt.
Dann wieder.

Dann zuckte die Flamme,
sprang die Tür zur Kammer auf,
jagten Schemen über Decke und Wand.

Da floh er, Hals über Kopf
und über die Felder.
Er schaute sich nicht um.

Zu Hause der Vater, die Mutter schämten sich.
Fünfzig Joch Grund, viel Wald, schön eben.
Bald wärs du Bauer geworden auf eigenem Hof.
Jetzt haben wir dich wieder.

Etliche Jahre später heiratete die Verwandte.
Ihn nahm sie zum Beistand.

HAU DA nire lehen oroitzapena:
gure aita, sei urte zituela,
emakume ahaide bati eman zioten,
senarra gazte hil baitzizaion, umerik eman gabe;
ez zuen berriz ezkondu nahi.
Baina hantxe zegoen etxaldea, zorrik gabe,
berrogeita hamar golde-lurrekin,
oinordeko baten zain.

Aita gogor jar ez zedin,
artile latzezko jaka bat erosi zioten,
azala zizatzen duten horietakoa.
«Badakik bidea», esan zioten,
«joango gaituk bisitan,
Ama Birjina egunerako, berandu jota.
Ez gaitzak lotsarazi».

Ama berria jornalariekin
segan aritzen zen bitartean,
berak izebaren ondoan eseri behar zuen,
egongelako ohe batean baizetzan hilzorian.
«Uki ezak. Hotz baldin badago,
piztu hilen argizaria».
Aurrean, argizaria eta pospoloak;
atzean, izeba.

Halako batean, hotz aurkitu zuen,
eta argizaria piztu.
Hamar Aita Gure
eta bost Agur Maria errezatu ondoren,
ez zegoen jada hotz.

Ondoren, berriz, gauza bera.
Gero, argizariaren argiak dardar egin zuen,
egongelako atea tupustean zabaldu zen,
eta horma-sabaietan itzalak igaro ziren lasterka.

Bera ihesi abiatu zen, mila txerren atzetik balitu bezala,
soroak zeharkatuz
atzera begiratu gabe.

Etxean, aita eta ama lotsaturik:
berrogeita hamar golde-lur, baso zabala,
zelai ederra.

Laster bihurtuko hintzen nekazari lurjabea.
Orain gure artean haugu berriro.

Handik urte batzuetara, ahaidea ezkondu egin zen,
eta aita hartu zuen lekuko gisa.

Resumen

Este artículo ofrece una somera introducción a la obra del escritor austriaco Erich Hackl disponible en traducciones al castellano (cinco novelas y un libro de poemas), con el objetivo de servir de marco a la lectura de los poemas que se presentan en la revista *Senex*.

Résumé

Dans cet article, nous essayons de présenter sommairement l'œuvre de l'écrivain autrichien Erich Hackl, afin de faciliter la lecture des poèmes traduits en euskara que nous publions dans ce numéro de la revue *Senex*. Cinq romans et un recueil de poèmes de cet auteur sont disponibles dans une version espagnole.

Abstract

In this article, we provide a brief introduction to the works of Austrian writer Erich Hackl, including poems translated into Basque and presented in this issue of *Senex*. Hackl has published five novels and one volume of poetry in Spanish translation.